

MASTER AMAIERAKO LANA 2017/2019 edizioa

HELBURUA

Abokatutzako masterrean ikasleei eskatzen zaie egiazta dezatela **ikertzeko, eztabaidarako eta ahozko komunikaziorako gaitasuna** dutela, baita analisirako gaitasuna ere baliabide bibliografikoak eta elektronikoak –batez ere datu base eta katalogo juridikoak– erabiltzerakoan.

Master Amaierako Proiektua edo Master Amaierako Lanaren (aurrerantzean MAL) helburua da graduondoko mailarekin lotutako gaitasunak ebaluatzea. Ikasleak bultzatu behar ditu gaur eguneko gaiez jardun profesionalean edo ikerketa juridiko batean aritzean aterako zaizkien arazo juridiko zehatzei aurre egiten ikas dezaten.

XEDEA

MALa da ikasle bakoitzak, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, egin behar duen bakarkako **memoria, azterlan, txosten edo irizpen originala eta profesionala**, abokatutzaren arlo desberdinekin lotutakoa eta masterrean landutako gai baten edo gehiagoren ingurukoa.

Masterrean emandako irakasgaietan landutako gai zehatz bati buruzko azterlana izan daiteke, edo, bestela, ikasleak Kanpoko Praktiketari lanerako erabili duen espedientearekin zerikusia duen gai bati buruzkoa, eta aukera eman beharko du bertan jasotzeko, diziplina anitzeko ikuspegitik, masterrean eskuratutako ezagutza eta gaitasunak. MALaren zuzendariak aholkatutako materialak erabili beharko dira lanean eta azken ondorioak jasoko dituen atala izango du lanak.

Ikasleak frogatu egin beharko du Abokatutzako masterrak ematen dituen ezagutza, gaitasun eta trebetasunak eskuratu dituela. Horretarako, lana egin eta defentsarako aurkezten duenean, lanean ikusi beharko da ikasleak datuak bilatu, gestionatu eta horien inguruko interpretazio kritikoa egiteko gaitasuna duela, ohitura akademikoekin bat, eta legeria, jurisprudentzia eta iturri dokumental eta bibliografikoak oinarri hartuta hausnarketa pertsonala egin duela.

MALaren gai zehatza ikasleak aukeratuko du.

GIDARITZA

MALa Zuzenbide Fakultatean eskolak ematen dituen irakasle DOKTOR baten gidaritzapean egingo da, edo **ikasleak berak aukeratuko duen** fakultate horretako ikertzaile baten gidaritzapean. **Horrek masterreko Batzorde Akademikoari jakinaraziko dio zein den gaiaren behin-behineko izenburua eta zein zuzendaria urriaren 5a baino lehen; bestela, batzordeak abiaraziko du bere kabuz gaia eta zuzendaria esleitzeko prozedura.**

Zuzendariaren eginkizuna izango da ikasleari aukeratutako gaia bideratzen laguntzea. Horretarako, bibliografiarik garrantzitsuenari buruzko gomendioak eta gaiarekin lotutako legeria eta jurisprudentiaren inguruko orientazioa emango dizkio.

Zuzendariaren ardura izango da ikasle bakoitzari lanaren ezaugarriak azaltzea eta lana egiteko orientazioa ematea. Halaber, bere ardura izango da zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta epaimahaiko buruari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere.

MALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu baina, betiere, zuzendarietako bat Zuzenbide Fakultateko irakaslea izan beharko da.

Ikasleak MAL osoa edo haren zati bat praktiketako hitzarmen baten barruan egiten badu, lana praktikak egiten diren erakundeko tutore batek zuzendu ahal izango du, baina, betiere, aurreko paragrafoan zehaztutako baldintzak (Zuzenbide Fakultateko irakaslea izatea) betetzen dituen tutorekide bat egon beharko da.

Aurreko ikasturtean masterrean eskolak eman dituzten abokatuek ere, nahi izanez gero, lana zuzendu ahalko dute baina ordainsaririk jaso gabe. Dena dela, tutorekide bat Zuzenbide Fakultateko irakaslea izan behar da.

MALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lanaren egilea izango da, baldin eta ikasle bakoitzak onartutako MALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, betiere indarreko legerian xedatutako baldintzak kontuan hartuta.

HIZKUNTZA

Titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera, masterrean eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahalko da lana, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, MALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

ESTILO ARAUAK

Lanak 40.000 karaktere izango ditu gutxienez, eta 80.000 gehienez (zuriuneak barne).

Letra tipo eta tamaina hauek erabiliko dira: Garamond (12 pt), Times New Roman (12 pt), Courier (12 pt) edo Arial (11 pt).

DIN-A4 tamainako orrietan inprimatuko da eta koadernatu egingo da.

Aurkezpen, aipamen, bibliografia, atalen zenbatze eta ordenazio egoki, ondorioak aurkezteari eta bestelako alderdi formalei dagokienez, normalean erabili ohi diren arauak errespetatuko dira. Besteak beste, honako arau hauek erabiltzea gomendatzen da: Harvard estiloa, MLA (*Modern Language Association of America*) estiloa, APA (*American Psychological Association*) estiloa, edo ISO 690 arauak.

Ikasleak benetan arreta handiz jokatu beharko du parafrasi bidezko testuak erreproduzitzerakoan. Plagioa eginez gero, lanak deskalifikatuko dira. Bestelakoa da lanean hitzez hitzeko aipuak eta dokumentu zehatzak erabili direla adierazten denean.

Azalean honako informazio hau agertu beharko da:

- Fakultateko logo ofizialak eta, hala badagokio, abokatuen elkargokoak.
- Aurkeztutako lana zein masterretakoa den, masterraren izena, alegia.
- Lanaren izenburu osoa.
- Egilea (“Egilea:” eta ondoren izen-abizen osoak).
- Zuzendaria (“Zuzendaria:” eta ondoren izen-abizen osoak).
- Ikasturtea eta data.

LANA GORDAILUAN UZTEA ETA DEFENDATZEA

MALaren zuzendariak masterraren idazkaritzara helaraziko du txosten bat lanaren defentsa baino lehen, erantsitako **I. eranskin**en jasotakoaren arabera, lana ondoko paragrafoan aurreikusitako aldiaren maileguan uzteko. Zuzendariak bere ustez garrantzitsuak diren ohar guztiak jasoko ditu txostenean, eta, nahi izanez gero, bere kalifikazioa ere adierazi ahalko du MALari buruz.

LANA GORDAILUAN UZTEKO DATAK

Ohiko deialdia: 2018ko abenduaren 17 edo 18an

Ezohiko deialdia: 2019ko urtarrilaren 22 edo 23an

Ikasleek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte masterraren idazkaritzan:

(1) MALa defendatzeko eskaera orria, **II. eranskin**aren arabera.

(2) MALaren kopia bat PDF formatuan, helbide elektronikoz bidaltzeko: secretaria.fac.derecho-bi@ehu.eus (ikasleak Leioa) eta secretaria.fac.derecho-gi@ehu.eus (ikasleak Donostia).

Masterraren idazkaritzak helaraziko dizkie euskarri informatikoan dagoen alea epaimahaiko kideei.

DEFENTSARAKO DATAK

Ohiko deialdia: 2019ko urtarrilaren 10 edo 11ean

Ezohiko deialdia: 2019ko otsailaren 4 edo 5ean

Lanak gordailuan utzi ondoren eta aurkeztutako lan kopuruaren arabera, Batzorde Akademikoak erabakiko du lanaren defentsa non, noiz eta zer ordutan egin beharko diren.

MALaren defentsa ekitaldi publikoan egingo da epaimahaiaren aurrean. Epaimahai hori unibertsitatean zein elkargoan eratu ahal izango da eta zuzendaria ezin izango da kideen artean egon.

Defentsak zati hauek izango ditu: aurkezpenean eta galderetarako txanda. Aurkezpenean ikasleak bere MALaren helburuak, metodologia, edukiak eta ondorioak azaldu beharko ditu epaimahaiak aurretik zehaztutako denboran (15 minutu gehienez). Ondoren, epaimahaiak balorazioak, komentarioak edo galderak egingo ditu eta ikasleak horiei erantzun ahal izango die.

EPAIMAHAIK IZENDATZEA

Zuzenbide Fakultatean eskolak ematen dituzten irakasle guztiak izan daitezke master amaierako lanetako epaimahaietako kide. Batzorde Akademikoak eratuko du epaimahaia eta izendatuko ditu epaimahaiko kideak sailek proposatutako irakasleen eta elkargoek proposatutako abokatuen artean. Proposatutako irakasle eta abokatu horiek euren borondatez eta ordainsaririk jaso gabe epaimahaiko kide izateko prest dauden masterreko irakasleak izango dira.

Epaimahai bakoitzak hiru kide izango ditu, eta, gutxienez, ordezko bat. Master amaierako lanaren zuzendari edo tutorekideak ezin dira izan, inola ere, eurek gidatutako lana ebaluatuko duen epaimahaiko kide, nahiz eta epaimahaiak –zuzendariak egindako balorazio txostena irakurritako izango duenak– baimendu egin ahalko duen haiek deliberazio prozesuan egotea.

Epaimahaiko idazkaria izango da GAUR aplikazioan Master Amaierako Lana kalifikatzeko aktak zuzen betetzeko arduraduna. Horretarako, hiru hilabete baliodun izango ditu MALaren defentsa egiteko datatik kontatzen hasita. Horren ondoren, epaimahaiko kide guztiak sinatu beharko dute digitalki.

LANA EBALUATZEA ETA KALIFIKATZEA

Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du. Ebaluazioa egingo da MALaren irakaskuntza gidan argitaratutako irizpideen arabera eta titulua egiaztatzeko memorian zehaztutakoaren arabera.

Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

- 0,0 – 4,9: Suspentso (S).
- 7,0 – 6,9: Nahiko (N).
- 7,0 – 8,9: Oso ongi (OO).
- 9,0 – 10: Bikain (B)

Masterreko Batzorde Akademikoak «ohorezko matrikula» eman ahalko die 9,0 kalifikazioa edo altuagoa lortu duten ikasleei, baldin eta epaimahaiak hala proposatu badu masterreko kalifikazio guztiak ikusi ondoren. Kopurua ezin izango da izan matrikulatutako ikasleen ehuneko bostetik gorakoa.

Gaiari buruzko gaitasun zehatzez gain, MALa egin eta defendatzerakoan ikasleak MAL irakasgaiari dagozkion gaitasun zehatzak lortu dituela erakutsi beharko du. Hauek dira gaitasun horiek:

- (a) Argudiatze eta arrazonamendu kritikorako teknikak behar bezala erabiltzea.
- (b) Ahozko eta idatzizko komunikazio prozesuak menperatzea, publiko espezializatuei informazioa egokiro transmititzeko moduan.
- (c) Ikasketa prozesua modu jarraitu eta autonomoan gestionatzea.
- (d) Gai batean espezializatzea, lan merkatura arrakastaz sartu ahal izateko, edo, hala badagokio, gerora espezializazio edo birziklatze ikasketekin jarraitzeko.

Ikasleak lana gainditzen ez badu, epaimahaiak MALa hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat egingo du, lana berriz ebaluatzen denerako. Txosten hori ikasleari eta zuzendariari helaraziko zaie.

Gradu amaierako lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arautegiari jarraiki egingo dira, baina epaimahaiak tartean dagoenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta, ondoren, Fakultateko Erreklamazio Batzordeak emango du erabakia; erabaki horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio unibertsitateko errektoreari.

LANAK ARTXIBATZEA ETA ERABILTZEA

Ebaluatutakoan, MALa artxiboetan gordeko da, edo, behar izanez gero, erakundearen gordailuetan. Lanen oinarritzko datuak eta laburpenak hedatu ahal izango dira edozein baliabide tekniko erabilita.